



PRENTSA-OHARRA

58 kolektibok esku hartu dute 2018 sanferminetako programaren diseinuan eta prestaketan, eta programarendako aurrekontuak % 6 egin du gora, 1,36 milioi euro baino gehiago jotzen duelarik

Aurten editatutako programak grafikoki artikulatzen ditu festarekin lotzen ahal diren 28 mikronarrazio, beste hainbeste literatur lanen hasieratik hartuak

Iruñeko Udalak adin eta ikusle mota guztiendako jardueraz jositako programa aurkeztu du aurten sanferminetarako, zeinean haurrendako jarduerak garrantzi nabarmena baitute, gune berri bat prestatu baita, *Kirol Ari* izeneko, eta gazteendako programazio berezi eta zabala ere eskainiko delarik. Hiriko folklore-aniztasuna aditzera ematen duten askotariko hitzordu musikalak ere hartzen ditu barne; 2018 honetan emakumeen presentzia izango duten su artifizialen bildumak jaurtitzeko eremua handitu da; eta programan ezinbesteko diren beste jarduerari eutsi zaie, besteak beste, Erraldoi eta Buruhandien Konpartsari eta herri-kirolei.

Iruñean, uztailaren 6tik 14ra, iaz programatutako 425 bat ekitaldiri gehitu behar zaizkio egunero egitekoak diren sei jarduera, *Kirol Ari* gune berrian kirol federazioek egingo dituztenak, eta gazte-eremuan egun jakin batzuetan erantsi diren beste jarduera batzuk. Udal-programan 490 ekitaldi inguru izango dira guztira, eta horiez gain, dozenaka ekitaldi programatu dira hiriko kolektibo eta elkarteek kudeatzen dituzten bost herri-gune partizipatiboetan.

Programazioaren oinarri dira aniztasuna, emakumeen presentzia eta adin guztietako jende mota oro aintzat hartzen duen eskaintza, eta gainera, bereizgarrietako bat da programazioa Udalarena izanagatik askoren arteko parte-hartze bateratuaren bidez osatu dela, marka guztiak hautsita. Guztira 58 kolektibok parte hartu dute, eta horietatik 36k zuzenenean parte hartzen dute, programazio-mahaiaren bitartez, ekitaldien diseinu praktikoan, zeinaren azken emaitza hiru bileraren ostean zehaztu baita.

Programazioaosatzen duten ekitaldien zuzeneko aurrekontuari dagokionez, ahalegina egin dela ikusten da; izan ere, 2018ko sanferminetako programan 1,366 milioi euroko inbertsioa egin da, 2017ko edizioan (1,289 milioi) baino % 6 gehiago. Foruen plazako gazte-eremuan jarduera gehiago eskaintzeak eta Media Luna parkeko lubanarroetan *Kirol Ari* haurrendako gune berria

1. orrialdea, (e)tik 6





sortzeak ekarri dute, batez ere, aurrekontuak gora egitea. Programaziora bideratutako kopuruari erantsi behar zaizkio errefortzuko-langileak kontratatzearen ondoriozko gastuak eta hiriko hainbat txokotan paratzen diren komun mugikorrek eragindakoak; beraz, Udalak festa hauetara bideratzen duen guztizko aurrekontuak 2,24 milioi euro jotzen du.

Azken urteotako festetako bereizgarria da jaietan bultzada ematea zuzeneko autogestioari eta auzo- zein gizarte-kolektiboen inplikazioari, eta horretarako Iruñeko Udalak berriro egin du Alde Zaharraren inguruan zenbait festagune sortzearen alde, zeinen kudeaketa, hain zuzen, aipatu ezaugarriekin bat datozen herri-kolektiboen esku egongo baita. Aurten, berriz ere, elkarteek zuzenean programatu dituzten bost gune egongo dira: Antoniutti, Basotxoak, Taconera-Vistabella Oko plaza eta Errekoleten plaza. Nafarroako Ikastolen Elkartea (Taconera-Vistabella), Eskualde Etxeen Nafarroako Federazioa (Basotxoak) eta Herri San Ferminak (Oko plaza eta Errekoleten plaza) ekimenez gain, Txirikorda eta FAIN izango dira Antoniuttiko txosnetako gunea kudeatzen, txosna Bolibiarra, Trenza de la Diversidad eta Mujeres del Maíz ekimenekin batera.

Adin guztietarako gune eta programen aldeko apustua

2018 sanferminetako jaiek adin guztietarako programazioan sakondu nahi dute, eta indartzen dute haur, gazte eta familiendako programazioa. Askatasun plazan egon ohi den *Hauek festak hauek!* programaren jardueri batu behar zaie iaz sortutako *Birjolastu* gunea, Vistabella - Taconera inguruan. Gainera, *Kirol Ari* estreinatuko da, Media Luna parkeko lubanarroetan 11 kirol-federazioekin elkarlanean prestatuko eskaintza; kirol anitz egiteko doako gunea izango da, 8 eta 14 urte bitarteko neska-mutilei zuzendua, non honako jarduerak eskainiko baitira: saskibaloia, badminton, esgrima, paseoak piraguan, herri-kirolak, hipika, futbola, taekwondo, xakea eta arku-tira.

Askatasun plazan, ez dira faltako, egunero, arratsaldetako txotxongilo-ikuskizunak, Otra Compañía, Maese Villarejo eta Bihar Taldea (euskaraz) konpainien eskutik. Ohi bezala, bertatik abiatuta eta *Hauek festa hauek!* gunea ixterakoan, Karlos III.aren oinezkoen etorbidera iritsiko dira antzerki-kalejirak. 2018ko sanferminek hirian dagoeneko ezagunak diren ekoizleak ekarriko dituzte –Brotons eta Almozandia–, bai eta talde berriak –Alas de Circo eta La FAM– eta itzal handikoak ere –Titiriteros de Binéfar–.

12 eta 17 urte arteko gazte eta nerabeendako Foruen plazako gune berezia mantenduko da, musika eta berariaz prestatutako arratsalde zein gaueko jarduerekin, zeinak aisialdi alternatibo gisa programatu baitira haien eskaerak aintzat hartuta. Uztailaren 7tik 14ra, 20:00etatik 22:30era, karaokeak, apar-festak, mega-ekortzaileak, giza futbolina eta dantza zein zumba-masterclasseak egongo dira. Gauez, 23:30ean hasita, eskaintza musikala izango da.

Hainbat musika-agertoki, erritmo eta joera anitzerako

Gauez, Foruen plazan, gazte-eremu den aldetik, tokiko, estatuko eta nazioarteko artisten kontzertuak egongo dira –La Pegatina, Iseo & Dodosound with The Mousehunters, Nathy





Peluso, Júpiter Jon, Berri Txarrak, Talco eta Bad Gyal–, eta Compañía plaza bestelako musika-erritmo eta estiloen oasia izango da. Izan ere, uztailaren 6tik 9ra Jazzfermin zikloko artistak izango dira bertan, Kenny Garret Quintet eta Carmen París, bestea beste; eta 10etik 14ra, munduko musikak eta soinuak izango dira entzungai, Quantic eta Soleá Morenterekin adibidez. Bi kasuetan, arratsalde eta gau izango dira emanaldiak.

Aurten, berriro ere, Gazteluko plaza izango da dantzaldietarako gunea (bi saio egongo dira, 19:00etan eta 23:30ean, salbu eta hilaren 14an, arratsaldeko saioa baino ez baita egongo). Hona bertan arituko diren talde eta disc-jockeyak: DJ Oihan Vega, DJ Pablito Mix, Puro Relajo eta ABBA The new experience. Horiez gain, orkestrak egongo dira: La Mundial, Valparaíso, Nuevo Saturno, La Pasarela, Maremágnun eta Krypton. Eta uztailaren 14an, Akerbeltz Taldea. Dantzaldiak egongo dira, baita ere, Gurutzeko plazan, 20:00etan eta 23:30ean, honako orkestra hauekin: Sylene, La Nube, Petanca, Stylo, Mediterránea, Euro, Sugar Show eta Arkansas. Uztailaren 13an, Zaharren Egunean, emanaldi berezia egongo da Los Reyes del Guatequeren eskutik, eskarmentu handia duten Helena Bianco eta Mochirekin, *revival* motako kontzertu batean, non 60 eta 70eko hamarkadetako pop-rock kanta arrakastatsuak interpretatuko dituzten. Uztailaren 14an Los Charros mariachiaren txanda izango da.

Nafar musikako bandek Gurutzeko plazako bermuta girotuko dute uztailaren 8tik 14ra. Zizur Nagusi, Cascante, Erriberri, Aranguren eta Vianako bandak etorriko dira, eta horiez gain, Orchestre d'harmonie La Nèhe (Dax, Frantzia) eta Harmonie Bayonnaise (Baiona, Frantzia) ondoko bandak.

Goizetan, herri-kirola, eta gauetan, artea

Beste urte batez, Foruen plazan izango dira, uztailaren 8tik 14ra, eguerdian, herri-kirolen ohiko txapelketa eta erakustaldiak –trontza, aizkolariak, txingak, sokatira, harri-jasotzaileak– bai eta kirol tradizionalen beste modalitate batzuetako erakustaldiak ere. Ohi bezala, sektore horietako izen handiko kirolariek izango da hitzordua, ekitaldi jendetsuetarako tokia duen plaza horretan.

2018ko Sanferminetako Su Artifizialen Nazioarteko Lehiaketa da gaueko programazioaren ardatz, eta aurten emakume gehiago egongo dira diseinatzaileen artean eta parte-hartzaile gazteagoak langile teknikoen artean; gainera, jaurtiketak egiteko eszena-gunera handitu egin da, betiere gotorlekuaren eremuan. Orain, su harresietako 150 metro bitarte hartuko dituzte, eta jaurtiketaren frontala Errege-erreginen Bastioitik Armada etorbiderako noranzkoan joango da (ikuspegi frontala autobus-geltokiko zelaigunean lortzen da). Lehiaketaren XIX. edizio honetan “egile-su” onenak bilatzeari eutsiko zaio, hala erakarrita Espainia, Frantzia, Italia, Danimarka eta Estatu Batuetako diseinatzaileak.

Hiru irabazle egongo dira, eta 5.000, 3.000 eta 2.000 sariak jasoko dituzte, Javier Murok sortutako trofeoaz ez ezik, zeinak urte honetatik aurrera San Fermin irudikatuko baitu. Ikusleen Saria mantendu da eta aintzatespen izaera izango du; hori horrela, ikusleek aukera izango dute





gehien gustatu zaien bildumari botoa emateko, eta horren harira egingo den opari-zozketa batean parte hartzeko.

Hiriaren “folkloreak”

Sarasate pasealekua tokiko folklorea erakusteko gunea izango da eguerdian eta arratsaldean egingo diren ikuskizunen bitartez. Uztailaren 8tik 14ra, jotazaleek ohiko saioak izango dituzte honako talde eta eskola hauen eskutik: Voces Riberas, Voces del Ebro, La Ribera Canta, Roberto Urrutia eta Corrientes Navarras, Voces Navarras eta Camino Martínez jota-eskola. Arratsaldean, bertso-saioen txanda izango da, eta dantza-ikuskizunena ere bai, Ribaforadako makil-dantzarekin eta Otsagabiako Muskilda eta Ortzaldar taldeekin, esaterako. Txikiendako magia- eta antzerki-ikuskizunak egongo dira, euskaraz, Zirika Zirkus, Gari, Montxo eta Joselontxo edo Potx eta Lotx konpainien eskutik.

Kapitulu honen barruan aipatzekoa da sanferminetako Txistularien Alardearen 53. edizioa, aurten uztailaren 9an izango dena. Ekitaldi hori programako antzinakoenetakoa da, eta oraingoan natura, eguzki eta uraren omenez egingo da, urtaro-egutegia markatzen duten elementuak izaki. 13:00etan izango da, San Jose plazan.

Auzotar berrien folklorearentzat ere bada tokirik sanferminetan, eta kulturen kalejira bat egingo da; iaz estreinatu zen ikuskizun horretan parte hartzen dute Iruñeko dozenaka talde eta entitatek, hainbat jatorri eta kulturatakoak.

Lehen aldiz literatura nagusi, programa ofizialean

Aurten irudimenaren eskutik dator argazkia, hitzek ere balioa dutelako. Javier Erreak (gaztelaniaz) eta Jon Alonsok (euskaraz) landu dituzte literatura unibertsaleko hainbat egile zein sortzaileen beste horrenbeste lanetako lehen orrialdeak. Eta horretarako, nolabaiteko iragazki bat baliatu dute, irakurleak erabili ohi duena testuan bilatzeko interesatzen zaiona, jatorrizkoak “gordetzen” duena. Kasu honetan, baztertutako hitzak gorriz zirrimarratuz, 28 mikronarrazio sortu dituzte, zeinen bidez islatu nahi baitira sanferminetako eskailera, suziria, entzierroa, tradizioa, gaua, topaketak, maitasuna, etab.

Horrela, 60ko hamarkadan matematika eta literatura lotzen zituzten abangoardiei zor zaien prozedura baten bitartez, egile hauen lanetan esku hartu dute: Cervantes, Goethe, Austen, Dovstoieski, Lessing, Tolstoi, Verne, Shelley, Kafka, Woolf, Munroe... Eta metaliteratura horrek Iruñeko jaiei buruz hitz egiten du.

Di-da batean irakurtzeko mikronarrazioak dira, eguneko jarduerak xehe-mehe erakusten dizkigun hurrengo orrialdeko zalapartan murgildu aurretik. Iruñeko alkate Joseba Asironek eta Nafarroako Dantzarien Federazioak egin dute programaren hitzaurrea. Ekitaldi guztiez gain, bestelako informazioa ere jasotzen da programan: zezen-feria, entzierroko arauak, erraldoi eta buruhandien ibilbidea, edalontzi berrerabilgarriari buruzko informazioa, intereseko telefonoak, eta *Eraso sexistarik gabe, Iruñea aske* kanpaina. Halaber, programan aurkitu daitezke



sanferminetako ekitaldiak non diren zehazten duen mapa tipografikoa, eta informazioa ematen da hauei buruz: elkarteek kudeatzen dituzten guneak eta jarduerak, kaleetan egongo den musikaren programazioa, Kondestablearen jauregiko erakusketak, Gayarre Antzokiko zein Baluarteiko ikuskizunak eta Labrit frontoiko partidak.

Hurrengo ekainaren 27an, ostegunarekin, argitaratutako 10.000 ale elebidun jarriko dira salgai, 2 euroan, eta liburu-dendatan, Turismo-bulegoan eta tonbolan erosten ahalko dira. Ohi denez, programaren bertsio tolesgarriak egongo dira, euskaraz eta gaztelaniaz, ingelesez, frantsesez, eta alemanez. Festetako kartela keinu zinematografikoa den bezala, programak literaturari egiten dio keinua. Errea Comunicación enpresaren diseinuak ibilbide bat eratu du festetako uneetan zehar, literaturako lan handiak mikronarrazio bihurtuta, lokarri bakar batekin: sanferminetako esperientzia unibertsaltasunaren zantzuak aurkitzea.

Mikronarrazio horiek hauek ikusgai egongo dira ere Kondestablearen jauregiaren ezkaratzean, ekainaren 29tik abuztuaren 26ra.

PROGRAMAKO TESTUAK. MIKRONARRAZIOA LITERATURAN GORDERIK ETA JATORRIZKO LANA

- Eskailera / Krimena eta zigorra (F. Dostoievski)
- Hiri irekia / Printze txikia (A. De St Exupery)
- Egun handia / Hiria eta zakurrak (M. Vargas Llosa)
- Jota Santuari / Ulises (J. Joyce)
- *Dibinoa* ezinbestean / On Kixote Mantxakoa (M. de Cervantes)
- Berealdiko ajea / Metamorfosis (F. Kafka)
- Sorginkeria / Aliceren abenturak Lurralde Miresgarrian (L. Carroll)
- Emakumeak eguzki-tendiduan / Urrezko koaderno (D. Lessing)
- San Ferminen kapotetxea / Ehun urte bakardadean (G. García Márquez)
- Isuna txizontziari / 1984 (G. Orwell)
- Gutxiago falta da! / Ilunbeen bihotzean (J. Conrad)
- Amodioa egunsentian / Dalloway andrea (V. Woolf)
- Errituala zortzietan puntuan / Ana Karenina (L. Tolstói)
- Agur, unaimaizter! / Denbora galduaren bila (M. Proust)

-
- Profitatu beharra / Harrotasuna eta aurrejuzguak (J. Austen)
 - Betikoak / Lorategiko festa (K. Mansfield)
 - Edaten dute, gero / Jockeya (C. McCullersen)
 - Amona parrandan / Jende ona nekez da aurkitzen (F. O'Connor)





- Lehen urratsa ematea / Diamantearen plaza (M. Rodoreda)
- Ezaren zer zati ez duzu ulertu? / Etsaiak, lagunak, ezkongaiak, maitaleak, senar-emazteak (A. Munro)
- Mundu osoan ez da halakorik / Frankenstein (M. Shelley)
- Erakarmena / Maitalea (M. Durás)
- Diosala eguzkiari / Komedia jainkotiarra (D. Alighieri)
- Trabestia / 2666: krimenen parte (R. Bolaño)
- 78ko Sanferminak / Michel K. bere bizitza, bere garaia (J.M. Coetzee)
- Giria erori da / Hirugarren gizona (G. Green)
- Rocka gauez / Mikel Strogoff (J. Verne)
- Iruñea San Ferminetan / Gero (P. De Auxular)

FITXA TEKNIKO

- Diseinua eta inprimaketa: Errea Comunicación
- Maketazioa hiru zutabetan
- Neurria: 15,5 x 28 cm
- Kuatrikromia
- Paper matea, 270eko gramajea azaletan, 100ekoa orrietan
- Grapen bidez lotuta
- Testuak: Javier Errea (gaztelaniaz) eta Jon Alonso (euskaraz)

Iruñean, 2018ko ekainaren 20an

